



SAN MARTIN JAIAK GAUR BUKATUKO DIRA

Amasan eta Hernialden hainbat ekitaldi izango dituzte gaur egun osoan zehar 5

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2009-11-15**

VII URTEA 1.828. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Adarren eta txalaparten doinuekin inauguratu zuten Guillermo Olmoren 'Atari' eskultura. R. CALVO

OSPAKIZUN POLITA ENIRIO-ARALARREN URTEURRENEAN

AMEZKETA Mankomunitatearen 600. urteurreneko ekitaldia burutu zuten atzo; sinadura ekitaldia egin zuten Ordizian, eta ondoren, Amezketan 'Atari' eskulturaren inaugurazioa, besteak beste 6

Etxerategen Batzar Nazionala egingo du gaur, Leidorren

TOLOSA Presoen senideek oinarrizko eskubideak errespetatzea eskatzen dute; «argazkiak harro erakusten ditugu ez harrokeriaz», diote 4



Gazteluko Kultur Astearen baitan, eskulanak izan zituzten atzo, E. MAIZ

Eskualdea kultur eta kirol ekitaldiez blai

TOLOSALDEA Kultur eta Kirol Asteetan murgildurik daude hainbat herritan 5/7

IBARRAKO UZTURPE IKASTOLAK

2009-2010 ikasturterako

TXONTXO UDAL LUDOTEKARAKO BEGIRALEAK

behar ditu.



Derrigorrezkoa da EGA eta Begirale Titulua izatea.

Ibartarra izatea balioetsiko da.

Curriculumak bidali azaroaren 19rako ibarra@ikastola.net era

"Ludoteka begiralea" zehaztuz



TGIUZ, S.L.k honako lanpostua bete nahi du:

Erref.: UDAL GARAPENERAKO TEKNIKARIA

Tolosaldeko udaltalde 21eko partaide diren udalerriei laguntza emango die beren ekintza planak garatu ditzaten

Honako gaitasunak eskatuko dira:

Goi edo Erdi Mailako Unibertsitate Titulazioa

Agenda 21eko ezagutza izatea eta eskualdea ezagutzea

EGA edo titulu baliokidea

B gidabaimena

Antzeko lanetan esperientzia

Interesatuak, lan@tolosaldea.net edo **Tolosako San Esteban 20**-ra bidali beharko dute curriculum osoa 8 eguneko epean lan eskaintzaren erreferentzia aipatuz

Desagertzearen liburua X



» Uzturretik

Koldobika Jauregi

Ene uharte honetan egunak lasai igarotzen dira, udazkena ere iritsi zait bazter honetara.

Benetako lehen egun euritsuak, hostotsuak, haize hotzez beteak...

San Martingo udaratxoa izan arren. Itsasoaren begiradak ez du barkatzen eta ezinegona sortzen zait bat batean.

Denbora dexente izango zen geure herria aldarrikatzen hasia zela bere buru jabetza, garai bateko diktaduraren eromenetik berpizten hasi izango balitz bezala.

Gobernu bat ere sortu genuen... Ai inozo galantak. Eta buruzagi jarritakoei sinistu ere bai. Hogeita hamar bat urte iraun zuen *euskal gobernu* kaxkar hark, gero, bat batean, *gobierno vascongado* eta hasitako lana bukatzen jardun zuten. «Maiatzeko-Pazkoa iritsi zene-

an, denak lurralde berean zeuden eta haize zaratatsu batez bete zen herrietako kale, etxe, mendi eta soro... Gizaki bakoitzaren gainean halako su mingain bat ezarri zitzaion eta bat batean beste hizkuntzetan hasi ziren beraien artean».

Motelak! Nork sinistu zer gertatuko zen. Euskal Herriaren dorrea, eraiki ezinean, deusezten hasi zen eta «esklaboei laguntza eske».

Gure dorre hura kulturaz bete behar genuke, baina errazagoa zen kirolak ipini eta bitartean diru truke aritzea atzealdean. Dorrea gelditu zenean, ezin altxa. Non da An-

boto? Non Mauleon? Non Gorbeia edo eta Barandiaranen euskal mitologia? Den dena ahaztuta, eta okerrengoratu ezinik.

Gure Gabonetan erretzen ziren enborren suak ez ziren buru gainean jarritakoak ez eta ere sanjoanetakoak. Aspalditik zetorren sua, ez zen buru gainean azaldutako su hura eta memoria ezabatzen zuena; ez, su hura beste su mota batekoa zen, geure kultura baztertzearren sua, hobeto esanda sutea.


Geroztik arina izan beti pentsatzen gure osaba zaharrek ez ote zuten horrexegatik txapela eramaten, alegia su arrisku hori itzal zedin.

Ziur aski beti izan gera su horren beldur, gure kultura lehertu araziko duen su horretaz. Gure antzinatek datorren jakinduria ez baiken

nuen idatzita utzi, baizik eta ahoz ahoko tradizioan, inork jakitea nahiko ez bagenu bezala. Baina liburua ez ezik pertsonak erretzen saiatu ziren garai hartan, ez sorgin garaietan bezala; ez, askoz ere demokratikoagoak izan ziren. Gorpua ez, bakarrik arima eta horrela urruntzen eta urruntzen joan ginen. Hutsaren peregrinazioan barnatzen... gero eta gehiago.

Hausnarketa honen zirriborroa nuelarik, amesgaiztoen artean esnatu nintzen lehengo batean eta udazkeneko egun argitzean jasotako hostoekin, txapela bat osatu eta estali nuen nire burua. Desagertzearen arrastoak buru gaineko su horietan egon daitezkeelako eta itzali nahi izanez gero, txapel on bat bezalakorik ez dago.

K Komikia



H Hilberriak

LUIS URRUZOLA LARRARTE

Jauna



Azaroaren 13an hil zen, 88 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Bere emaztea: Evarista Urkola; seme-alabak: Jose Leon, Felix eta M^a Jesus Txapartegi; Tere eta Miguel Angel Lopez, Luis Mari; bilobak: Jose Angel, M^a Jesus eta Iñaki; Naider, Betat, Oier; anai-arrebak: Jose Leon (?), Joxepi (?) eta Miguel Anton (?); Nicasio, Jose Mari (?) eta Juanita Martiarena, Graxi eta Nicolas Aldazabal; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoiitz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitzetula BIHAR ASTELEHENA, arratsaldeko ZAZPIRETAN Tolosako CORPUS CHRISTI parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Arizleta baserria (San Blas auzoa)
Oharra: Gorputz bella Tolosako FUNERARIA VASCONGADA Tanatorioan egongo da, astelehen goizeko 10:00ak arte.



TOLOSA
2009ko
azaroaren 15ean

LUIS URRUZOLA LARRARTE

Jauna



Urak dakarrena urak darama, zuk emandakoa gurekin gelditzen da



TOLOSA
2009ko azaroaren 15ean

Zure ilobak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Ijurkok, Salaberriak eta Galarragak euren senide eta lagunen egoera salatuko dute gaurko batzarrean. R. CALVO

«Argazkiak harro erakusten ditugu, ez harrokeriaz»

Presoak » Etxeraten gaurko batzarrean «azken erasoak» salatuko dituzte, 'bis a bis' etarako senideak miaztearena, esaterako.

REBEKA CALVO

Etxerat elkarteak urteko Batzar Nazionala egingo du gaur goizean Tolosako Leidor antzokian. Bede-ratzigarrena da, eta orain artekoetan bezalaxe helburua «preso dauden gure senide eta lagunen oinarriko eskubideak errespetatzea eskatzea» da. «Batzar Nagusia urtero egin beharreko zerbaite da eta gustura egiten dugu behar dugun zerbaite delako, are gehiago aurtengoan. Izan ere, lehenago ere erre-presioa jasaten baguenen, orain erre-presioa areagotu egin da; kartzeletako egoera geroz eta okerreagoa da», argitu du Etxerateko Jon Ijurkok.

Bestetik, hala ere, euskal preso politikoen senide eta lagunene arteko «kohesioa» ere areagotu nahi dute batzarren bidez: «Gure bata-

suna ezinbestekoa da ditugun erronka izugarriari aurre egiteko».

Batzarra eta gero, dena den, bazkari e derra ere egingo dute, hori ere oso garrantzitsua baita, horrela «talde-terapia» egin ahal izateko. «Batzarra eta gero bazkaltzeko biltzen gara, eta malko artean bada ere, esperientzia desberdinak elkartrukatzeko ditugu. Borrokan jarraitzeko izugarriko indarra ematen digu denak batera gaudela jakiteak eta honen bukaera gure senitarteko eta lagunak etxean ditugunean bukatuko dela jakiteak», argitu du Ijurkok.

Egoeraren irakurketa eta ekarpenak

Gaurko batzarra hasteko lehenik eta behin, «aurtengo egoeraren irakurketa» egingo dute, eta ondoren, aurretik senide eta lagunene artean banatu duten galdetegiarene arira sortutako «ezinegon, zalan-tza eta ekarpenen inguruko eztabaida» ere egingo dute. «Guk beti esaten dugu Batzar Nazionalak urte batetik bestera ere luzatzen direla, urtean zehar irauten dutela,

alegia. Ekintza nagusia aurtengoan Tolosako batzarra izango da, baina ateratzen diren gaiak urtean zehar ere jorratuko ditugu», gaineratu du Etxerateko kideak.

Presoen argazkien afera

Aurtengoan presoen argazkiekin hika mika ugari izan dira eta Ertzaintzak leku askotatik kendu ditu jada irudiak eta horretaz ere hitz egingo dute batzarrean. «Aurten, alde batetik, presoen argazkien afera dugu. Gu oso harro gaudere gure senide eta lagunez, baina argazkiak ez ditugu harrokeriarengatik ateratzen, harrotasunez erakusten ditugu, salatu nahi dugulako beraiek jasaten duten eskubide urraketa guztia, gure helburu bakarra da. Badakigu helburu honen mina ematen duela, argazki hauek ikusten diren bitartean jendeak hori eskubideen urraketa latzekin lotuko duelako, bai presoekiko eta baita euren senide eta lagunekikiko. Ezin dugu ahaztu 16 senide hil direla istripuetan eta zaurituak ere ehunka direla. Barruko egoera miserabileen ondo-

«Gure duintasuna errespetatzeko eskatzen dut»

MARITXU SALABERRIA » Emilio Salaberriaren arreba

Zein da zure anaiaren egoera?

Anaia Curtiseko (Galiza) espetxean dago. Zazpi urte eta erdi daramtza kartzelan. Lehen lau urteak Navalcarmon (Madril) eman zituen eta orain Curtisen dago.

Zenbatero joaten zarete bisitan?

Hilean behin joaten gara. Nere amak 86 urte ditu eta saiatzen da hilero joaten, baina oso gogorra egiten zaio. 700 bat kilometro dira, ostiralean irteten zara, igandean itzuli... Psikologikoki gogorra da, osasunari ere eragiten dio eta ekonomikoki ere kaltetzen gaitu.

Nola hartu dituzu bisitan doazenei ezarritako azken neurriak?

Egunetik egunera zailtasun gehiago jartzen dituzte, ez joateko, urduri joateko... Berez urduri joaten gara, bestela ere ez dakigulako zer pasako den, beti dago zerbaite, baina 'bis a bis' ak egiteko senideak miaztearena gehiegizkoa da. Honen halare, bisitak egiteko animatzen gaitu, nahiz eta neurri hauek gure duintasuna zapaltzen duen.

rioz hildakoak ere badira», argitu du.

Egoera honen aurrean, hausnarketa egiteko garaia iritsi dela dio Etxerateko kideak eta ondorioz, gaurkoan «iritzi guztiak bildu nahi ditugu, gure borroka nola jarraitu behar dugun berriaz hausnartzeko, kontutan hartuta gure erronka nagusiak jarraitzen dutela izaten presoak eskubide guztien jabe behar dutela izan. Bide horretan dispersioa, preso gaixoen arazoaren arazo —ez dute pausorik ematen, aldez kontrakoa badira zenbait preso, hemendik gutxira albiste izango direnak egoera larrian daudelako— eta bizi arteko zi-

«Batzarrean, denak biltzea indarra ematen digu»

JOSE MARI GALARRAGA » Eneko Galarragaren aita

Zein da Eneko semearen egoera une honetan?

Zazpi bat urtetik gaude egoera berean, semea ondoan ez dugula, eta espetxe desberdinetatik ere pasada. 2006. urtean euroagindu epaiketa egin zioten eta Pau-eko epaiketgiak argi berdea eman zion bere espainiaratzeari. 2008. urteko martxoan Espainiaratu eta Soto del Realera (Madril) eramane zuten zuzenean. Bertan 4-5 hilabete eman eta gero Ocaña IIra (Toledo) eramane zuten eta han dago oraindik.

Epaiaketa egin al diote?

Bai eta zazpi urte bota dizkiote eta horretan ari da, espetxe zigorra betetzen.

Zergatik da garrantzitsua zuzentzat mudu honetako batzarrak egitea?

Denak biltzen garelako eta horrek indarra ematen duelako. Zure egoera bera duen jende gehiagorekin hitz egiteko aukera duzu eta hori oso garrantzitsua da guretzat.

gorraren afera salatuko ditugu», esan du Ijurkok.

Presoen senide eta lagunek argi dute: «Preso, errefuxiatu eta iheslari guztiak ez dira inoiz bakarrik egongo. Gu beraiek gabe ez gara ezerrez eta alderantziz, hau erre-presioa eragiten dutenek ere badakite. Baina bitartean sufrimendua areagotu egiten dute. Eta ez gara oso urrutira joan behar: Lizartzan Kontxi Agirrebarrenaren kasua dugu, ezer egin gabe 62 urterekin kartzelajoa dena, Ibarako Maite Aranalderekin egin zutena ere hor dugu, beraiek libre utzi eta izugarriko iskanbila sortu zuten gero...».

Zure negozioa ulertzen dugu



Ibilgailu Komertzialen Gama



TOLOSA MOTOR, S.A.

San Esteban auzoa, 14 - A • 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38 • e-mail: tolosa.tolosa.redpeugeot.com

PILOTA PARTIDUAK
aspepilot.com

Azaroak 16 • Astelehena 16:30

Galarza V - L. Galarza Ibai Perez - Urberuaga

BERASALUZE IX - GOÑI III ARITZ LASA - EULATE

Cabrerizo II - Arruti Ongay - Cecilio

Tolosako Beotibar pilotalekuan

Aurtengo San Martin jaiei gaur iritsiko zaie amaiera

E. MAIZ

Amasako San Martin Jaiak eta Hernialdeko Txerri Festa gaur bukatuko dira. Amasan atzo, goizean umeen krosa ospatu zuten. Ondoren, txekor jatea eta kantu poteoa egin zituzten eta afal ostean, bertso jaialdi bikaina izan zituzten. Gaurkoan berriz, lehenik idi probak ikusteko aukera izango dute. Arratsaldean ezkondu eta ezkongabeen arteko herri kirolak eta jarrain jaiiei amaiera emango diete.

Hernialdean berriz, goizean goiz hil zuten Berrobotik erositako txerria. Ohitura zaharrei jarraituz egin zuten guztia eta arratsaldean odolkiak egiten aritu ziren. Ondoren gaur jan ahal izateko txerria txikitu zuten. Gaur berriz, herri kirolen ostean bazkari ederra egingo dute eta horretarako 70 lagun bilduko dira. Babarrunak, odolkiak eta txerria jango dituzte.

» GAUR

Hernialde

■ **13:00.** Herri Kirol erakustaldia: Izeta VI eta Tolosa II aizkolariak eta Jose Beltza eta Bitori harri-jasotzaileak. Bestalde, edozeinek parte hartzeko harri berezi bat egongo da plazan.

■ **14:00.** Bazkaria Ernio-Bide Elkartearen egingo dute. Bezperan hildako txerria jango dute baita odolkiak ere.

Amasa

■ **10:30.** Meza Nagusia.

■ **Ondoren.** Idi probak izango dituzte.

■ **18:00.** Herri Kirolak herritarren artekoak izango dira, Ezkonduak ezkongabeen kontra.

■ **Ondoren.** Martina Sorginari agurrak esan eta XX. Intxorren aldekoa egingo dute.



Amasan haurrak korrika saioa egin zuten eta Hernialden odolki mordoia egin zituzten. R. CALVO/E. MAIZ

Kirol jarduerak nagusi Anoetan eta Asteasun

Kirola» Kirolarekin zerikusia duten ekitaldiak antolatatu dituzte; atzo BTT irteera eta orientazio proba izan zituzten.

ERREDAKZIOA

Kirola egiteko egun aproposa izan zen atzokoa, eta Anoetan eta Asteasun horretarako baliatu zuten. Anoetan kirol astea dute eta 18 kilometrotako BTT irteera izan zuten. Asteasun, berriz, mendi astea dute eta orientazioa lantzeko jokoak egin zuten herrian barna.

Gaurkoan, aldiz, Anoetanginkana familiarra egingo dute kiroldegian 11:00etan eta Asteasun mendi irteera egingo dute goizean.



Anoetan 18 kilometroetako BTT irteera egin zuten. R. CALVO



Asteasun mendian orientatu ahal izateko jokoak egin zuten. R. CALVO

GIPUZKOAKO BUSKAL KANTU TXAPELKETA

Azaroak 15, Igandea, 18.00etan:
FINALA
DONOSTIako ANTZOKI Zaharrean

berria hitza

Pirritx, Porrotx eta MariMotots

IRRIEN LAGUNAK CDa

16 €



Euskal pirata bihurriak gara; zatotz gurekin irriak aboradatzera!

Noiz eta nola egin eskaria?

Azaroaren 30 arte:

• 902-82 02 01

• harpidetza@hitza.info

Bidalaketa gastuak daon



PIRATAK
DVDa
18 €

hitza

600 urte atzera eginda 'Atari' eskulturarekin ospatu dute urteurrena

Amezketak » Enirio-Aralar Mankomunitateko 600. urteurrena zen atzo eta ospatzeko hainbat ekitaldi egin zituzten.

REBEKA CALVO

600 urte atzera egin zuten atzo, Enirio-Aralar Mankomunitateko osatzen duten Tolosaldeko eta Goierriko 15 udalerriek. Izan ere, orain 600 urte, Ordizian, Gipuzkoako Aralarko basoen bateratze-sinadura egin zuten eta atzokoan, gauza bera ere egin zuten oraingo alkateek Ordiziako udaletxean. Lehenik eta behin udalerriz guztietako alkateak udaletxean bilduta dantzarien agurra jaso zuten eta ondoren, basoen bateratze-sinadura egin zuten. Sinadura berri honi esker 1821. urtean gauzatu zen zatiketa «gainditzat» jo zutelarik. Lote bidezko zatiketa horrek, ordea, basoen kudeaketa bateratua egitea oztopatu du urteetan, baina aipatu moduan, aurtun, %6,66ko portzentajea baino gehiago izan duten udalerriei diferentzia ordaintzea adostu dute eta atzoko sinadurarekin Aldundiak proposatutako batasun hori egi bihurtu zen.

Ordiziatik San Martinera

Hori goizeko lehen ekitaldia besterik ez zen izan, hala ere. Ordiziatik San Martinera joan ziren eta bertan, Aralarko garai bateko artzainek euren artean komunikatzeko erabilitako oihuen, adarren



«Atari» eskultura inauguratu zuten atzo txalaparta doinuen artean, Guillermo Olmo egilea ere han zegoela. R. CALVO

eta txalaparten doinuekin batera Guillermo Olmo eskulturgileak egindako *Atari* lana inauguratu zuten.

Orain dela bost urtetik Amezketan bizi den eskulturgile bizkaitarra nahiko urduri zegoen atzokoz. Hilabete askotako lanaren emaitza da *Atari* eta «harro» aurkeztu zuen jendaurrean, «guztión artean egindako lana» baita. Eskultura oihuen, txalaparten eta adarren mezuekin batera inauguratu zuten eta artista bera ere animatu zen txalaparta astintzera. Ondoren, bertaratutako agintariek hartu zuten hitza, lehena Amezketako alkatea, Jesus Iñurritak, izan zelarik. «Aralar, azken urteetan, gure arbasoei ogibidea eskaini die, meatzetan, larreetan...



15 udalerrietako alkateak eta hainbat agintari, Ordizian. I. GURRUTXAGA

eta amezketar bezala emandako guztia itzultzeko garaia iritsi da. Gure omenaldia egiteko unea da», argitu zuen. Ordiziako alkate eta

Mankomunitateko lehendakaria den Jose Miguel Santamariak, bere aldetik, atzoko «bi ekintzekin —Ordiziako sinadura eta artelana-

ren inaugurazioa— Mankomunitatea eta Aralar bera omendu eta oroitu nahi ditugu. Ordizian, lana ondo eginda, urteetako gatazkarekin amaitu ahal izan dugula erakutsi dugu eta lanaren inaugurazioarekin Aralarri keinu bat egin diogu, dituen altxorrek eta duen balioa nabarmenduz», esan zuen.

Habeen bizia luzatuz

Guillermo Olmo berak ere hitz egin zuen, lehenik eta behin omenaldi hau egiteko eskaintako aukera eskertu zuen eta *Atari*-rekin bere asmoa «inguruko etxeak egiteko erabilitako Aralarko habeak berriz ere Aralarren jartzea» izan dela esan zuen. «Beltzak dira bere biziazen bukaera delako, baina habeen goikaldean kolore biziak dituzte, bizitzen jarraituko baitute hemen», gaineratu zuen.

«Gure arbasoen barne liskarrak konpondu ditugu orain, 600 urte eta gero, elkarlanean»

Hitza hartu zuen azkena, Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusia izan zen. Goizeko Ordiziako ekitaldirekin hausnarketa bat egin zuela argitu zuen, «herri batek bere barne liskarrak konponatzeko aukera» badagoela, alegia. «Gure arbasoen barne liskarrak konpondu ditugu orain lan eginda. Elkarlanerako gaitasuna behar dugu iraugo badugu», zehaztu zuen. Ekitaldia bukatzeko Mikel Mendizabal eta Bixente Gorostidi bertsolariak aritu ziren.

Goizeko ekitaldien ondotik, agintari guztiak elkarrekin bazkaldu zuten eta 18:00etan Iker Goenaga zizurkildararren eta Ruper Ordorikaren kontzertuekin amaitu zuten urteurrenoko egitaraua.



Munduko lehiaketarako bidean Euskal Herriko frisoiak

TOLOSA » Urteroko moduan Mus Txapelketa azkarrak hartu zuen atzokoan Tolosako Beotibar pilotalekua. Aurtengoa IX. edizioa izan da, baina beti bezala izerdi hotzak, urduritasuna eta kontzentrazioa ziren nagusi

si Beotibarren. Izan ere, Mus Txapelketa azkarreko 2009ko Munduko Txapelketa aurrerako txartela eskuratzeko aukera zuten eskuartearen, finalistek lortu zutena, hain zuzen ere. E. MAIZ

TOLOSA » Euskal Herriko I. Frisoi Lehiaketa egin zuten atzo, Tolosako Ferialekuan. Eskualdetik Asteasuko bi ganaduzalek hartu zuten parte eta horietako batek, gainera, zazpigarren ataleko 4 eta 5 urte

bitarteko frisoien bigarren saria eskuratu zuen. Besteak, hirugarren sari bat ere etxeratu zuen. Sari nagusia, Behien Txapeladunen Txapeladuna, Nafarroako ganaduzale batek irabazi zuen. I. GARCIA

Gorostidiko langileak kalean irtenbide eske

Ekonomia » Jende asko bildu zen Triangulon, Gorostidi enpresaren egoera salatu eta irtenbideak eskatzeko.

ERREDAKZIOA

Atzo eguerdiko 12:00etan jende asko elkartu zen Triangulo plazan. Gorostidiko langileak, familiako kide, langunak, beste enpresetakoak... elkartu ziren Gorostidiko zuzendaritzari irtenbidea eskatzeko. Tolosako kaleetan barrena beraien egoera salatu eta kezkek eta amorruek adierazi zituzten.



Triangulotik abiatu dira ehunka lagun Gorostidikoari irtenbidea eskatzeko. IMANOL GARCIA

Langileek adierazi dutenez, gauegun, 168 familien etorkizuna arriskuan dago, lanean jarraitzen dute eta ez dizkiete soldatak ordaintzen eta gainera, 60 langileren kaleratzea eta enpresa ixtearen mehatxua ari dira jasaten.

EREa onartzean zuzendaritzatik, Gorostidi enpresaren eta langileen lanpostuen etorkizuna bermatuko zituztela adierazi zieten baina ez da horrelakorik gertatu adierazten dutenez.

Gainera, Gorostidiren itxiera gertatuko balitz, jakinarazi dute, Tolosaldeari zuzenean eragingo liokela, beste hainbat lanpostu eta komertzio arriskuan jarriz.

Bertako produktuen azokak Berastegin eta Gaztelun

Kultura » Kultur Asteei agur esango diete datorren urtera arte. Gaur ekintza ezberdinak izango dituzte: azoka, bazkaria, taloak...

ENERITZ MAIZ

Kultur Asteak aurrera doaz eta asteburuan, besteak beste, Berastegin eta Gaztelun ospatu dute.

Berastegin goiza hitzaldiarekin hasi zuten eta bazkal ostein mus txapelketa eta I. duatloian parte hartu zuten. Adinaren arabera taldeka banatu zituzten eta baita ibilbidea ere. Korrika eta bizikletan egin behar izan zuten eta lasterketaren ostein merienda izan zuten. 18:00etatik aurrera Oñatiko ganbarako abesbatza eta gauean, Euskal musika emanaldia Ansa ahizpen eskutik.



Berastegiko haurrak I. Duatloian parte hartzen eta Gazteluko gaztetxoak eskulan tailerlean. ENERITZ MAIZ

Berastegiarrek Kultur Asteari amaiera gaur emango diote eta goizean zehar herriko produktuak egongo dira eskuragai: barazki, gazta, ezti, eskulanak... Eta Gazta txapelketa, II. Ardi-ahari txapelketa eta III. Animaleri erakusta izan-

go dira. 18:00etatik aurrera talo jantegia egingo dute.

Gaur Gaztelun azoka

Haurrek eskulan tailerrek hasi zuten eguna eta jarraian, herri kirolean parte hartzeko aukera izan



zuten. Ondoren, indarrak berreskuratzeko merienda ederra banatu zieten. Afaldu aurretik, *Munduen zaintzaileak* Ander Izagirre-ren hitzaldia izan zuten Erroizpe Azpiko Kirol eta Kultur Elkartearen afaria ere bertan egin zuten.

Gaur 10:00etatik aurrera bertako baserrietako produktuen eta artisaunen azoka izango da herriko plazan. 11:00etan Meza Nagusia izango da eta 13:00etan jubilatuek beraien bazkaria izango dute trikitariaren elkartearen bertan.

Sustrai Colina lehena Tolosako kanporaketan

Bertsolaritza » 646 puntu eskuratu zituen Colinak. Jarraian, Alberdi, Elortza, Gurrutxaga, Agirreazaldegia eta Zubeldia sailkatu ziren.

E. MAIZ

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia aurrera doa eta atzo Tolosako Usabal Kirolegian izan zen asteburu honetako bertsozaleen zita.

Finalaurrekoetako hirugarren saioa izan zen eta bertan izan ziren, Igor Elortza, Sustrai Colina, Iker Zubeldia, Uxue Alberdi, Iñaki Gu-



Saioko une batean Iker Zubeldia bertsoa botatzen. BERTSOZALE ELKARTEA

rutxaga eta Ainhoa Agirreazaldegia bertsolariak. Gai jartzailer lanean Saroi Jauregi aritu zen.

Usabal kirolegia lepobeteta zegoela hasi zuten saioa bertsolariak eta zortziak paseak zirela jakinarazi zituen Saroi Jauregi atzoko saioak emandako emaitzak. Lehengo postuan 646 punturekin, Sustrai Colina lapurtarra sailkatu zen eta zuzenean pasako da bigarren itzulikora. Bere atzetik, 637, 5 punturekin Uxue Alberdi sailkatu zen. Hirugarren postuan, 629 puntu lortuta Igor Elortza izan zen, laugarren sailkatua Iñaki Gurrutxaga izan zen 626 puntu lortuz, Ainhoa Agirreazaldegik 594 pun-

tu eskuratu zituen eta azken postuan 591 punturekin Iker Zubeldia geratu zen.

Ezusteko asko izaten ari den Txapelketa da aurtengoa eta gazte berriak indarrean datozela ikusi zen atzokoan ere.

Gaurko saioa Hendaian

Gaurko saioa Hendaian izango da eta 17:30etik aurrera, Beltzenia pilotalekuan izango dira: Julio Soto, Jone Uria, Jon Maia, Amets Arzallus, Aitor Sarriegi eta Onintza Enbeita. Eta gaiak jartzeko lana, Zuriñe Larriturena izango da. BEC'erako bidea nork hartzen duen argituz doa pixkanaka.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Zorionak!

Andres Gaztañaga (Ibarra). Bihar 92 urte. Zorionak etxekoan partetik. Ondo pasa eguna!



Zorionak!

Juan B. eta Manuela (Lizartza). Gaur 62 urte ezkondu zinetela. Ondo ondo pasa zuen seme-alaba, ilobak eta birloben artean.



Urte askoan!

Julen.
Bihar lau urte!
Zorionak!



Herritarrak deabruen erritmora

TOLOSA ● Ikuskizun polita izan zen atzo ikusgai Tolosa-ko kaleetan. Izan ere, Tolosako dendarien ekimenez, Bilboko Deabru Beltzak taldea izan zen euren ikuskizuna eskaintzen, eta jende ugari gerturatu zen hura

ikustera, lehendabizi Traingulon, eta ondoren, Sor-tzez Garbiaren plazan. Perkusio doinuekin, eta dantza bereziekin batera sua gehitu zioten ikusgarritasuna emanez ikuskizunari. I. TERRADILLOS

A Agenda

Deialdiak

■ **Asteasu.** Mendi Astearen baitan, mendi irteera eta bazkaria. Irteera 09:00etan, Otsabi, Belabietan, Loatzo eta Alustizara egingo dute eta ondoren bazkaria izango da.
■ **Tolosa.** Euskal Herria plazako jubilatuek dantzaldia Jesus musikariarekin 18:00etatik 20:00etara.

■ **Villabona.** Gurean, gaur: 17:00etan *G. force*, eta 19:30ean, *Agora*.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

Bihar

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunik.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidorren gaur: 17:00etan, *Viki bikingoa* eta 19:30ean eta 22:00etan *Gigante*. Bonberenean 19:00etan, *Jungla de cristal 2*.

TXOKA hitza saridunak

ASPEK antolatutako binakako partidatarako

Bihar
16:30ean
Tolosako Beotibar pilotalekuan

• Mari Kruz Gurrutxaga (Tolosa)
• Lorentxo Goikoetxeandia (Lizartza)

sarrerak leihatilan harpidedun txartelarekin

aspepelota.com

TXOKA hitza

zuri arrain

iturgintza & bainugelak